



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




afera asuntoa, kontua, gaia	Aferaz pentsatzen zuen aldi bakanetan denetariko arrazoi ilunak bururatzen zitzaizkion...	13
agondu etzanda egonda, gorputza tentetu	— Aha –asmatu zuen erraten–, ohean agondu bitartean.	77
ahaide senidea, familiakoa	Biziki hunkitu ninduen aitona nire argazkiak edukitzeak. Nire ahaide hurbilena zen...	114
ahapeko isilpekoa, ahots baxuan	...noizbehinka ushebti txikiari ahapeko hitzak erraten zizkiolarik.	185
ahots erlatsa ahots marrantatuta, ez garbia	Anek eskaileretan behera egin zuen. Artean ere Mainerren ahots erlatsa entzuten zuen, katuari errieta eginez.	50
aitzakia desenkusa, zuribidea	Txirrina joz sartzen zen etxeetan, auskalo zer aitzakia erabiliz.	115
akigarri nekagarria	Eguzkienea garbitu bitartean, bazekien lan akigarriak kaloriak erretzen zituela...	153
akitu nekatu	Iluntzean, akiturik , sukaldean eseri ziren biak tea hartzera.	133
aldarte umorea	Anek berehala ulertu zuen neskaren aldarte aldaketa.	48
alimaleko izugarri handia, itzelezkoa	Minutu batzuk geroago, poliziak urdaiazpiko ogitarteko alimaleko bat ahoratzen zuen.	111
alor lursaila, arloa	...zuhaitz soilen artean: baso biluziak eta alor zuri karratuak.	199
anabasa nahaste-borrastea, nahaspila	Une batez ez zion antzik eman anabasa hari. Objektu gehiegi zeuden, eta hautsak amatatu egiten zituen koloreak.	37
argindar elektrizitatea	Beharko zituen arropak aukeratuta, Anek ura eta argindarra moztuta zeudela egiaztatu zuen.	146
arranditsu harroa, handikia	Autoa utzi eta eraikin arranditsura hurbiltzen ari zela, Ane perlesiatuak gelditu zen.	18
arrastiri arrastia, arratsaldea	Distira ahul bat zen, une batez arrastiriko argitasun hitsa islatu zuena.	9
asaldatu aztoratu, urduritu, kezkatu	Lehen zure aitona, orain Bartzelonako tipo hori... Lasaitu egin behar duzu. Eta nik asaldatu besterik ez zaitut egiten...	122
asmakeria irudikeria, irudipena, fantasia	—Normala da ez sinestea –onartu zuen Anek–. Ez dakit. Beharbada, dena nire asmakeria besterik ez da.	111
aszetiko bertutetsua, morala	Haurrak keinu aszetiko batean elkartzen zituen arrosario batez bilduriko eskuak.	25
atorra alkandora	Txapelak, atorra koadrodunak eta larruzko botak.	26
atxilotu preso hartu	Hasteko, hainbatetan atxilotua genuen Retolaza andereñoa droga salerosteagatik.	108
auzapez alkatea	Herriko auzapez monsieur Ledoux oso hunkiturik azaldu zen.	59
aztal orpoa, takoia	Katua besaulkiaren atzetik atera eta Aneren aztalen kontra marruskatu zuen buru iletsua.	46
bakan urria, eskasa	Aferaz pentsatzen zuen aldi bakanetan denetariko arrazoi ilunak bururatzen zitzaizkion desertzio misterioitsu hura azaltzeko.	13
behaztopa estropezu egin, tupust egin	Liburu pilekin behaztopatuz , liburutegitik alde egin zuen lasterka.	63
behiala antzina, aspaldi	Behiala , burdinsare astun batez itxita egoten zen, baina ate-orri alimalekoak lurrean zeutzan.	163




bekozkoa ilundu bekokia zimurtu	Maiderek bekozkoa ilundu zuen.	45
bermatu finkatu, apoiatu	Anek palaren punta lurrean bermatu eta kopetako izerdia xukatu zuen.	7
bertsu ia bera	Biak ala biak mundutik desagertuak ziren, garai bertsuan gainera.	139
bihurkin destorniladorea	Indarra erabiltzea erabaki zuen. Sukaldera joan, eta mailua eta bihurkin handi bat hartuta itzuli zen.	57
birao madarikazioa	Hortz arteko biraoa bota zuen: pantailak zerrenda luze bat azaltzen zuen.	41
bortitz biolentoa, indarkeriazkoa	Gertakari bortitz batek astindu du Donostiako Gros auzoa.	101
brast kolpean, bat-batean	Euritakoa brast gelditu zen. Zer egin ez zekiela, Ane denda bateko erakusleihoari begira geratu zen.	156
burruntzi barilla, burdinazko hagatxoa	Lizun zerrenda luzeak ikusi zituen horma sendoetan, eta izotz burruntziak teilatu hegaletik dilindan...	
deliberatu erabaki	Ane ikusita, ez zen deliberatu hitz egitera...	227
dilindan zintzilik, kulunkan	Lizun zerrenda luzeak ikusi zituen horma sendoetan, eta izotz burruntziak teilatu hegaletik dilindan ...	
distira dirdira, argitasuna	Aristarain tenientearen begi izoztuetan distira bat agertu zen.	108
dzanga trago batean, zurrutadan	Bukatu zuenean, Anek dzanga hustu zuen bere Coca-Cola.	113
ebakin moztutako zatia	Anek ebakinak hartu eta poliki irakurtzen hasi zen.	57
egurastu aireztatu	Hotz egiten zuen, leihoa zabaldu baitzuen gela egurasteko .	24
elizkizun meza, elizako emanaldia	Bouthierren aldeko hileta elizkizuna gaur arratsaldeko...	59
ernegu amorrazioa, errabia	Seguruenik, aitak ereindakoa zen ernegu haren zati handi bat.	15
erpe atzaparra	Deabruak saguzar hegoak zituzten eta zakil alimalekoak. Denek zerra zorrotzak zeramatzaten beren narrasti erpetan .	171
erran esan	Orain, ordea, emakume hori berriki hil dutela erraten didazu.	103
erredura erremina	—Ez didazu sinesten beraz? —galdetu zuen Anek, negarraren erredura eztarrian.	108
erretreta erretiroa, <i>jubilazioa</i>	—Geppert komisarioak orain dela bost urte hartu zuen erretreta .	86
errezel gortina, oihala (metaf.)	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...	109
erro sustrai	Zesar ilearen erroetaraino gorritu zen.	54
errugabe hobengabea	—Eta Maider? —galdetu zuen Anek—. Uste duzu garai hartako hiltzaile berak hil duela? Hala balitz, aitona errugabea litzakete...	117
errukarri pena ematen duena, koitadua	...Anek ezin zion kargurik hartu errukarri hari.	22
esoterismo sekten dotrina	Tira, jende askok zituen gustuko fantasia eta esoterismo kontuak.	39




fereka laztana, igurtzia, xera	Hotzikara baten astindu zuen Ane. Udazkenaren fereka .	63
funsgabekeria lelokeria, arduragabekeria	Funsgabekeriak besterik ez ote ziren bere susmo guztiak?	209
giltzarrapo giltzatakoa, morroiloa	Gelako ate gehienak giltzarrapoz itxita zeuden.	16
gogaitu aspertu, nazkatu, nekatu	Gogaiturik zegoen burua lur azpian gordetzeaz.	119
goraki ozenki	Goraki erranik, azalpenak ez zitzaizkion hain sinesgarriak iruditzen.	106
gotor gogorra, sendoa, indartsua	Argumenturik gotorrenak lausotu egiten ziren zerra odoltsuaren distiraren aldean.	105
gozakaitz desatsegin, garratz	— Segitu aurretik —ohartarazi zuen Anek, gozakaitz —, gauza bat utzi nahi dut argi, Pons jauna: ez dut iruditxoa saltzeko asmorik.	78
gupidagabe errukigabea, krudela	Mendi bakarti baten magalean egonda, eta eskualde hartako eguraldi gupidagabearen laguntzaz, utzikeriak hondamena zekarren ezinbestean.	8
habe zutabea	Sabaiko habe astunek antzinako itsasontzi baten...	56
haizatu uxatu, aienatu	Eguzkienenan emandako aste haietan burutik haizatzen saiatu zen izugarrikeria hura.	11
hanpatu puztu, harrotu	Aurkezpen hanpatuak aho bete hortz utzi zuen Ane.	77
harpe leizea, kobazuloa	Bizi bakarrik ez, gogorarazi zion bere baitako ahots batek, hil ere harpe horretan egin zunan.	8
harrezkero handik gora, aurrerantzean	Anek elkarrizketa bukatzea erabaki zuen. Maider nahiko mesfidati zegoen, eta harrezkero ez zion gauza handirik argituko.	49
hauspotu areagotu	Beldurra ematen zion mutilaren haserrea hauspotzeak .	19
hazpegiak begitarte alderdiak, aurpegia	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luze eta kakoa zen, eta, begi ilunen laguntzaz, kutsu ironiko batez gozatzen zituen hazpegi latzak.	110
haztatu hatzekin ukituz sentitu	Anek lurra haztatu eta eskuargia topatu zuen.	167
heineko neurrikoa, adinakoa	Eta, tira, aitona heineko xelebrekeria litzateke hura.	9
herrimin nostalgia	— Herriminik ez izateko! —azaldu zion Aneri, edalontzia betetzen ziolarik.	122
hezikaitz moldagaitza	Urdintzen hasitako bizar sarea zuen, buruko ile motz-motza bezain hezikaitza .	110
hilotza hildakoa (<i>cadaver</i>)	— Hilotzarena erran behar nion Ertzainari?	113
hiltzaile erailea	—Eta Maider? —galdetu zuen Anek—. Uste duzu garai hartako hiltzaile berak hil duela? Hala balitz, aitona errugabea litzakete...	117
hits tristea, zurbila, maskala	Distira ahul bat zen, une batez arrastiriko argitasun hitsa islatu zuena.	9
hizpide solasbidea, gaia	Trebetasun aparta erakutsi duzu hizpide deserosoa saihesten eta nire kontra bihurtzen!	132
ibar harana, bailara	Hasieran jakiak, garbiketarako produktuak eta egunkaria eroatera joaten zen ibarreko herri nagusira.	99
ihartu lehortu, idortu	Landare ihartu era barazki ustel pila handia lurperatu zuen.	99




ile-xerlo ile-sorta	Eguzkiak belzutako buru soilaren inguruan, ile-xerlo urdin luze batzuk zituen, ardien txima zurixken antzekoak.	141
indarge ahul	Nekaturik sentitzen zen, indarge .	93
indusketa aztarrিকা eginez ikertzea	Arkeologia indusketetako aztarna kaltegabeen antza hartu zion Anek.	30
iraleku iratzea (<i>helecho</i>)	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimelduak erdikusten ziren...	109
irarri grabatu	Zapala eta urre kolorekoa zen, eta eustoki borobilean “120” zenbakia zeukan irarrita .	128
itsukako hitzordu finkatu gabekoa, aliritzira gertat	—Honek itsukako hitzordu baten itxura kezagarria dauka –barre egin zuen poliziak...	110
izu beldurra	Asmatzen zituen arrazoi zentzuzkoak izu olatuen artean itotzen ziren.	105
jaiera debozioa	Irakasleak jaierazko isiltasun batez irentsi zituen azalpenak.	215
jaregin askatu, libratu, soltatu	Polizia handiak besoa lasaitu eta agureari jaregin zion.	168
jazarpen esetsaldia, pertsekuzioa	Jazarpenak segitu zuen.	156
kaier koaderno	Polizia zaharrak bere kaiertxo aterata telefono eta helbideak kopia zituen astiro.	135
kako okertua	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luze eta kakoa zen...	110
kamaina ohaska, litera	Bere kamaina zarpailaren ertzean eseri zen. Askoz ere lasaiago ematen zuen.	171
kankailu handikotea, ez itxura finekoa	Zu bezalako kankailu bat lan hori egiteko gauza bazen...	139
karraska zarata kirrinkaria	Eguzkienearen zurezko egitura astunak karraska sekretuak egiten zituen, baserri zaharra hausnarreanari balitz bezala.	138
karrika kale txikia	Kiratsa ohartarazita, karrikako 12.zenbakiko bizilagunek Ertzainari deitu zioten.	101
karrikaratu kalera atera	... karrikaratu eta bi gela hartu zituzten hurbileko hotel batean.	150
katramilatu nahasi, korapilatu	Are gehiago katramilatu zuen dena aitona babesteagatik.	96
kausitu aurkitu, idoro, topatu	...gorpuak kausitu zituen joan den astelehen goizean...	60
kedar osorik erre gabearen gai beltza	Haren aurpegitxo biribila kedarrez belzturik zegoen...	
kirats sarkor kirats sakona	...erromea zerizkion, kirats sarkor bat bezala.	56
kirrinkari karrankaria, irrintzi gisako soinu	Loperenak aitonaren baserrira eraman zuen bere Patrol kirrinkarian .	14
kolkoratu edan	Kafe bero-beroa kolkoratu arte ez zuen hotzikara usatu.	56
kukutu uzkurtu, bildu bezala	...katuak atzera egin eta besaulki baten atzean kukutu zen...	45
kutsu airea, itxura, doinua	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luzea eta kakoa zen, eta, begi ilunen laguntzaz, kutsu ironiko batez gozaten zituen hazpegi latzak.	110




kuzkurtu batuta, bilduta bezala, uzkurtu	Gau hartan ohean kuzkurturik , ideia lazgarria bururatu zitzaion...	105
labore zereala	Goserik batere ez izan arren, katilukada bat kafe eta labore apur batzuk irenstera behartu zuen bere burua.	30
lanbro zirimiria, euri fina	Itxaropena zuen eguzkiaren printzek lanbroa bezala suntsituko zituztela pentsamendu beltz haiek guztiak.	29
lastaira koltxoia	Ane lastaira berriaren gainean eseri zen.	26
lausengu eztikeria, zurikeria	Lausengu merkeetatik mehatxu erdi ezkutuetara igarotzen zen ahotsa bera ere bai.	19
lauso zehazgabea, difuminatua	Hiritik alde egin eta Naturan bizitzeko gogo lauso a izan zuen Anek betidanik.	8
lazgarri beldurgarria	Gau hartan ohean kuzkurturik, ideia lazgarria bururatu zitzaion.	105
lerratu labaindu, mugitu	...frantses polizia belauniko jarri zen sarraila arretaz aztertzeko. Hatza lerratu zuen sarrailatik.	144
linimentu botika gisako ukendua	Hala ere, linimentuaren usain sarkorrek dilindan zirauen airean.	24
lipar unea, momentua, eretia	Lipar batez telefonoak isila besterik ez zuen transmititu.	12
listu ttua, txistua	Anek listua irentsi zuen. Negarrez hastear zegoen.	102
lizun mohoa, hezetasunak eraginda	Lizun zerrenda luzeak ikusi zituen horma sendoetan, eta izotz burruntziaik teilatu hegaletik dilindan...	
lohitu zikindu	Ez zitzaion ondo iruditzen haren oroitzapena lohitzea ...	34
lokamuts amesgaiztoa	Burezurra aurkitu ondorengo egunak amesgaizto baten antzera gogoratzen zituen, baina lokamuts hura ere indarra galtzen hasi zen laster.	99
loki buruaren belarri aurreko gunea	Ezin zituen begiak izugarrikeria hartatik aldendu. Beldur taupadak sentitzen zituen lokietan .	10
magal mazela, malda	Mendi bakarti baten magalean egonda...	8
mahuka manga	Malenferrek abituaren mahuka goratu zuen.	169
maiztua higatua, gastatua, hondatua	Armairu ilun zabalaren txanda: barne arropak, atorra maiztuak , jaka pare bat, modaz pasaturiko praka batzuk...	25
maki gerrillaria	Naziek sekulakoak egin zituzten eskualde honetan, maki aski bihurria baitzebilen hemen.	201
mardul sendoa, betea, lodia	Eguzki zuria zegoen, baina hodei mardulak hurbiltzen ziren itsasotik, armada isil baten antzera.	130
mardul betea	...baina hodei mardulak hurbiltzen ziren itsasotik, armada isil baten antzera.	130
margul zurbila, kolorea galdu duena	Tiraderan karpeta bakarra zegoen. Beltza zen, zetazko zinta gorri margul batez itxia.	57
marruka orroka, txilioka	Anek Moulin irudikatu zuen gela haietan harat-honat, negarrez eta marruka .	206
melenga gozoegia	—Ez haserretu, Duhalde andereñoa —Ponsen ahotsak kutsu melenga hartu zuen—.	80
mendre ahula	Baina ahots hura oso ahula zen, eta haren arrazoiak ezin mendreagoak .	102



mesanotxe gau-mahaitxoa, ohe ondokoa	Mesanotxearen gainean, edalontzi pitzatu bat eta liburu pare bat.	25
mesfidati sinetsi gabe, susmo txarrez	Anek elkarrizketa bukatzea erabaki zuen. Maider nahiko mesfidati zegoen, eta harrezkero ez zion gauza handirik argituko.	49
meta pila, multzoa	Bigarren gelan egur meta handi bat besterik ez zuen ikusi.	36
mizpirak sudurreko arnas zuloak	Azkura sudur mizpiretan . Saguen korrika arinak.	37
mokor mokila, koxkorra	Lur mokorren artean, burezur horiska batek lurrez betetako begiez so egiten zion.	10
mortu hutsa, inor gabea	Goizaldeko karrika mortuek distira iluna egiten zuten.	192
mukuru gainezka, goraino	Sainduen irudi margulek mukuru betetzen zituzten bolantearen ondoko bazterrak.	164
narritatu kitzikatu, exzitatua	Hezetasun sundea latzak sudurra narritatzen zien.	164
ñabardura xehetasuna, detailea	Aire hotza zebilen, eta mendiek grisaren ñabardura guztiakin jatzita jasotzen zuten euriaren fereka.	56
oinaze sufirimendua, tortura	Anek bere buruari galdetu zion zergatik ezin zen Zesar bezalako on puska batekin maitemindu, zergatik aukeratu behar zuen beti oinazearen bidea.	55
oldartu inpetuz mugitu	Eskaileretara oldartu baino lehen, goratu egiten zuten iratiaren bolumena.	37
onbera ona, maitagarria	Telefonoz, polizia erretiratuaren ahots lasaiaren eraginez, aitona onberaren itxurako gizon bat espero zuen Anek.	109
ostarte argiunea, hodeiartea	Barre haiek oso seinale ona iruditu zitzaizkion, ostartetxoak ekaitzaren ostean.	23
papur birrinak, zatitxoak	...polizia ohiak ogi papurrak haizatu zituen bizarretik.	111
perlesiatu zur eta lur, harrituta / elbarritua	Autoa utzi eta eraikin arranditsura hurbiltzen ari zela, Ane perlesiatu geratu zen.	
pikotx kokoriko, kukubilko (hank tolest	Pikotxean jarri eta gertuagotik aztertu zuen.	30
piltzar ehun zati urratua, zati apurtua	Praken piltzarren artean, palaren puntak zerbait aurkitu zuen.	31
pipi sitsa, zura jaten duen intsektua	...eta pipiak jandako bi aulki zaharrez aparte; erabat hutsik zegoen.	36
porlan zementua	Zuhaitzek osatzen zuten zirkulu itxiaren erdian porlanezko egitura astun bat altxatzen zen, hezetasunak belztua eta leihatila estuz hornitua.	162
poto lorontzia	Anek marihunana landare erraldoi batzuk erdikusi zituen potoetan .	45
sarraski hilkuntza, masakrea	...baita gerra amaieran Erresistentziako zenbait taldek kolabo-en artean egindako sarraskiarena ere...	117
sen instintua, jaidura	Sen hutsez, pentsatu gabe...	
setati setatsua, tematia	Bere isiltasun setatien babesten zen. Ez zuen ezer erraten hitz egiteak beldurra ematen ziolako.	19
soil bakana, urria	Anek beheko ibarraren ikuspegia izan zuen zuhaitz soilen artean.	199
soraio axolagabe bezala, nagiki	Honek, ordea, soraio jarraitu zuen ushebtiari frantsesez eta latinez hitz egiten.	188



sorgortu sentikortasuna galdu	Hankak sorgortzen zizkion izuari aurre eginez, oin puntetan atera zen aretotik.	
sumatu nabaritu, igarri	Hala ere, hautsa zegoen bazterretan, eta zoko sunda arin bat sumatzen zen intsentsu lurrinaren azpian.	45
sunda usaina (janariena-eta)	Hala ere, hautsa zegoen bazterretan, eta zoko sunda arin bat sumatzen zen intsentsu lurrinaren azpian.	45
suspertu berpiztu	Izenek eta tokiak istorio bortitz eta sinesgaitza osatu ahala, iraganeko mamu odoltsuak berpiztu egiten ziren, Aneren ahots dardaratiaz suspertuta .	
taxu ganora, taiua	...Anek ulertzen zuen aukera aparta zela bere pentsamenduetan taxu apur bat jartzeko, ezagun eta adiskideengandik deskonektatzeko.	21
teink egon tentsioan egon	Frantsez poliziaren aurpegiko giharrak teink zeuden.	159
tenore ordua, garaia	— Alde egiteko tenorea dugu, Xavier.	147
trufa burla, txantxa	Aneren ahotsean ez zegoen trufa arrastorik.	239
trufatu adarra jo, burla egin	— Arrakasta handiagoa izanzen zenuke emakumeekin –trufatu zen Ane—.	150
uher arrea, grisa, lohia	Putzuetako ura uher dago oraindik.	161
usnatu usaindu	Bere jabearen atzetik, txakurrak buztana astinduz alde egin zuen, Aneren eskuak berriz ere usnatuta ...	
usu ugari	Eskua pasatu zuen besoko ile urdin usuen gainetik.	244
uxatu aienatu, urrundu	Ane ahalegindu zen burua kutsatzen zioten susmo beltzak uxatzen .	74
uzkurtu batuta, bilduta bezala	Arima uzkurturik arma deskarratu eta zabor poltsara bota zuen.	57
xalo apala, xumea, inozentea	Jakin-min xalo batez begiratu zion Aneri, ate ondora urrundu baitzen negar egitera.	178
xukatu lehortu, sikatu	Amaitu zutenean Anek begi gorriak xukatu zituen.	125
xuxurlatu murmurikatu, isilean hitz egin	— Oso ederra da –xuxurlatu zuen, eta begiak Anerenganantz goratu zituen—.	54
zabukada kulunkaldia, mugimendua	Zabukaden artean, Anek irudipena zuen basoak arnasari eusten ziola.	161
zahato ardo bota, larruzkoa	Argazki batean, aitonak zahatotik edaten zuen.	26
zantzu seinalea, susmoa	Gau hartan ohean kuzkurturik, ideia lazgarria bururatu zitzaion: zantzu guztien arabera, ushebteik Mainerren eta besteen hilketekin zuren zerikusia...	105
zarpail traketsa, hondakina	Bere kamaina zarpailaren ertzean eseri zen.	171
zealdoka balantzaka, alderoka	Irakaslea nekez zutitu eta zealdoka urrundu zen zakarren artean.	208
zeruertz horizontea, ostertza	Arnasa lasaitu bitartean, zeruertzera begiratu zuen.	7
zetaka mantxa, forma lohia, orbana	Frantses poliziak eskuak goratu zituen: bi zetaka zurbil liburutegi ilunean.	122
zezeldu zailtasun handiz ahoskatu	Zezeldu zuen agenteak.	



zigarrokin zigarro hondakina	Hondakin pilak bazterretan, botilak, zigarrokinak , aldizkari pornografiko margulduak.	
zimeldu zimurto, ihartu	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimelduak erdikusten ziren...	109
zimendu oinarria	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...	109
zirrikitu bitartea, tartea	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...	109
zoko sunda zarratu usaina	...eta zoko sunda arin bat sumatzen zen...	45
zorrozki arreta handiz	Zesarrek hatz luzeen artean erabili zuen, alde guztietatik zorrozki begira.	54
zotin negar intziria	— Bai —Aneren ahotsa zotinek itota atera zen.	103
zurbil zuri-zuria, kolorgea	Lainoak besarkada zurbil batean biltzen zituen inguruko mendiak, eta sabai heze bat bezala hedatzen zen mendatearen gainean.	109